



Gehituk, Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteak, Eusko Jaurlaritzak 2006an onura publikoko elkarre izendatu zuenak, 2004an Donostiako hiritar merituaren domina eta 2009an Gipuzkoa Giza Eskubideak saria leskuratu dituenak, ahobatez erabaki du

2014ko ZILARREZKO GEHITU SARIA: MALAS COMPAÑIAS Zinemagintza Ekoiztetxeari

Zinemagintzak balioen hezkuntzarako tresna gisa eta pentsamendu kritikoko korronteak sortzeko gai den tresna gisa duen garrantzia ezin hobeki islatuta geratzen da ekoiztetxe honen ildo estrategikoetan, eta, ibilbide horri eman dion jarraipenagatik, gure aitortpena eta eskerrona merezi izateko arrazoi bilakatu da. Esanahi handia du horrek Donostia bezalako hiri batean, zinemagintza oso loturik baitago bere nortasunarekin eta bere izenarekin.

Antonio Hens Córdoba zinemagile eta zuzendariak eta Inés Núñez Vega ekoizpeneko eta ikus-entzunezko, telebistako eta zinemagintzako edukien zuzendariak 2002. urtean sortua, **Malas compañías** ekoiztetxeak merezimendu osoz jaso du sari hau, kontuan izanik nolako apustua egin duen gay tematikako filmen alde, errealitate horretara hurbiltzeko orduan ikuspegi berriei lehentasuna emanez. Ikuspegi komertzial batetik arrisku batzuk hartzen dituen zinemagintza da, ausarta, elementu goxagarririk eta moralizatzailezik ez duena, zintzotasunez eta errespetu handiz errealitatearen plano desberdinak jorratzen dituen, eta horrekin batera, homosexualitatearen bizipenak berezkoak dituen zailtasun ugariak agerian jartzen dituen.

Malas compañías, hain zuzen ere, ekoiztetxe honi izena eman zion film laburra izan zen. Nerabe gay batek sexualitatearen deia nola bizi duen itzulgingururik gabe islatzen duen lan bat da, sari ugari jaso dituen.

Ekoiztetxe honen filmografiaren barruan, gainera, gizarte-konpromisoarekin loturiko lan ugari topatzen ditugu. Horren adibide garbi bat izango litzateke **Seres Extravagantes** dokumentala, LGTBI kolektiboak Castroren iraultza garaiko Kuban jasandako diskriminazioa eta zapalkuntza jorratzen duena (Film Dokumental Onenaren Lehen Saria Biarritzeko 2005eko hamalaugarren Zinemaldi Latinoan), **Azul no tan rosa** lan venezuelarra (Miguel Ferrari), 2014ko Goya sarietan **Iberoamerikako film onenaren saria** irabazitakoa, edo **La Partida**, futbola, homosexualitatea, gizonezkoen prostituzioa eta sexu-turismoa ardatz dituen eta gaur egungo Kubako lurraldean kokatuta dagoen historia.

Horrengatik, patroiz eta estereotipoetatik urrun dagoen filmografia baten giza kalitateagatik, bere gizarte-balio ukaezinagatik eta zinemagintza komertzialetik urruntzeak berekin duen apustu ausartagatik, betiere LGTB kolektiboaren errealitate desberdinak ezagutzera emanez eta defendatuz, 2014ko ZILARREZKO GEHITU saria eskaini nahi diogu "MALAS COMPAÑIAS" ekoiztetxeari.

